



Petronorrek 25 plazatako prestakuntza-programa atera du, ordaindutako praktikekin

- **Prozesu Jarraituko Instalazio-operadorea izateko ikastaroa elektrizitatean, elektronikan, fabrikazio mekanikoan, kimikoan, instalazioan eta mantentze-lanetan espezializatutako LHko graduatuei zuzenduta dago**
- **Ikasleek enplegu-maila handia eta oso soldata lehiakorra dituen Petronorreko instalazio-operadoreen lan-poltsan sartzeko aukera izango dute**
- **Prestakuntzak 920 orduko iraupena izango du eta Petronorren instalazioetan emango da, 2026ko irailaren 13an hasi eta 2026ko azaroaren 30era arte**

Muskizen, 2026ko urtarrilaren 20an. Petronorrek, Lanbideren eta Somorrostro Prestakuntza Zentroaren lankidetzaz, Prozesu Jarraituko Instalazio-operadore izateko prestakuntza-programa antolatu du, kimika, mekanika, elektrizitate eta elektronikako espezialitate jakin batzuetako nahiz instalazioko eta mantentze-lanetako edo antzekoetako goi-mailako heziketa-zikloko titulazioa duten pertsonentzat.

Ingurunearen eta industriaren deskarbonizazioa xede duten Petronorren ekimenetako partaide izan daitezten, ikastaroa gainditzeko 25 ikasleek konpainiaren industria-instalazioko operadoreen enplegu-poltsan sartzeko aukera izango dute, eta operadore bezala lan egiteko gaikuntza izango dute prozesu jarraituko industrietan (findegiak, kimikoak, paper-fabrikak, nuklearrak, uren tratamendurako instalazioak, zementu-fabrikak...).

Ikastaroak 920 ordu inguruko iraupena izango du. Prestakuntzaren lehen zatia ikasgelan egiteko moduko atal teorikoa izango da, eta ekainetik aurrera, ikasleek praktikak egingo dituzte lantegian. Gainera, azken fase honetan, ikasleek lanbide-arteko gutxieneko soldadari lotutako soldata-beka jasoko dute (ekainean, uztailean, irailean, urrian eta azaroan). Horrela, ikasleek laneratze-maila handia lortuko dute, baita soldata arras lehiakorra ere.

Era berean, emakumeek ordezkapen txikia duten arlo honetan aukera-berdintasuna sustatzearren, Petronorrek emakumeen presentzia sustatu nahi du ikastaro honetan.

Petronorreko instalazioetan emango da, 2026ko apirilaren 13an hasi eta 2026ko azaroaren 30era arte. Hautaketa-prozesuan izena emateko epea gaur goizean ireki eta 2026ko otsailaren



2ko (astelehena) 14:00ak arte luzatuko da, eta Somorrostro Heziketa Zentroaren webgunean egin daiteke.

Prozesu Jarraituko Instalazio-operadorea

Prozesu Jarraituko Instalazio-operadorea energia sortzeko prozesuak, instalazio kimiko eta petrokimikokoak, paper-fabrikakoak eta prozesu jarraitua duten beste lantegi batzuetakoak operatu, kontrolatu eta gidatzeko gaikuntza duen profesionala da. Eragiketa horiek zerbitzuaren hartzaileen beharrekin sinkronizatuz, horiei lotutako makinen, ekipoen eta instalazioen funtzionamendua, abiaraztea eta geldialdiak kontrolatuz eta mantentze-lan egokia egiten dela bermatzeaz arduratuz, laneko arriskuen prebentzioari, kalitateari eta ingurumenari buruzko arauak betetzeaz gain.

Hauexek dira bere funtzio nagusiak:

- Instalazioko makinak, ekipoa eta instalazioak prestatu eta egokitzea.
- Produkzioko makinak, ekipoa eta instalazioak operatzea.
- Prozesuko eragiketak egitea.
- Instalazioen eta prozesuen kontrol lokala egitea.
- Fabrikazio, segurtasun eta ingurumeneko arau egokien arabera jardutea.

Petronorri buruz

Petronor Bizkaiko industriaren eragile nagusia da, zuzeneko enplegua ematen die 940 pertsonari eta zeharkako enplegua beste 6.000 baino gehiagori. Azken bost urteetan, 1.200 milioi euro baino gehiago inbertitu eta 201 pertsona kontratatu ditu.

Bizkaiko lurraldeari egiten dion ekarpenaren isla da Bilboko Portuko trafikoa duen pisua, % 40koa alegia, eta harexeri dagokio foru-ogasunen guztizko diru-bilketaren % 5,5. Petronorrek hiru foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean banatu den 936 milioi euroko ekarpena egin du.

VKComunicación

Informazio gehiago:

Virginia Knörr Barandiaran

Tel.: 944 01 53 06. Mugikorra 629 15 60 31

E-maila: virginia@vkcomunicacion.com